

Gobernu
Korporatiboaren
Txostena

2010

2011ko ekaina

PARQUE TECNOLÓGICO-TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A.

1. JABETZAREN EGITURA

1.1.- Sozietatearen kapitala

2010eko abenduaren 31n ondokoa zen Sozietatearen kapitala:

Azken aldaketaren data	Kapital soziala (€)	Akzio kopurua	Boto-eskubide kopurua
2010-06-30	92.959.700(*)	929.597	929.597

Akzioak izendunak dira, bakoitza ehun euro nominalekoa, mota berekoak eta guztiz harpidetuta eta ordainduta daude.

1.2.- Ekitaldiaren itxierako datan, ondokoak izan dira partaidetzen jabeak:

Akziodunaren izena edo izen soziala	Zuzeneko boto-eskubide kopurua	Guztizko boto-eskubideen %
Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. / Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, S.A (SPRI, S.A.)	617.995	%66,48
Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia (BFA/DFB)	163.379	%17,57
Azpiegiturak, S.A.U.	119.000	%12,80
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)	26.361	%2,84
Zamudioko Udala / Ayuntamiento de Zamudio	2.862	%0,31

1.3.- Ekitaldian, mugimendu nagusi hauek izan dira akzio-egituran:

Akziodunaren izena edo izen soziala	Eragiketaren data	Eragiketaren deskribapena	Partaidetzaren % zabalkuntzaren aurretik	Partaidetzaren % zabalkuntzaren ondoren
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea	10.06.30	2.636.100 euroko (*) kapital-zabalkuntza	%0,00	%2,84

(*) 2010eko ekitaldian Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) 4.880.010 euroko emakida demaniala ematea adostu zuen 75 urtez Sozietatearen mesede. Izenpetutako akordioaren ondorioz, aipatu emakidaren kontraprestazio gisa, Sozietateak kapitala zabaldu du 2.636.100 euroko zenbatekoarekin. Hala, dagozkion akzioak eman dizkio UPV/EHUri %2,8ko partaidetzara heldu arte, 92.959.700 euroko kapital sozialari dagokionez. Horrela, emandako emakidaren balioaren diferentzia -2.243.910 euro- "Jaulkipen prima" gisa erregistratu da balantzearen ondare garbian 2010eko abenduaren 31n. Jaulkipen primaren saldoa erabilgarri dago erabilerarako murrizketa espezifikorik egon ezean.

Bestalde, 2010eko abenduaren 16an Batzar Nagusiak kapital soziala 7.300.000 eurotan zabaltzea onartu zuen. SPRI, Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A. eta Bizkaiko Foru Aldundia bazkideek abenduaren 31n aipatu zenbatekoa harpidetzeke eta ordaintzeke zuten, 5.500.000 eta 1.800.000 euro hurrenez hurren, eta akzio berriak harpidetu eta ordainduko dituztela adierazi dute.

1.4.- Administrazio Kontseiluko kideek ez dute Sozietatearen akziorik.

1.5.- Sozietatearen harremani dagokienez, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA (BFA/DFB) da AZPIEGITURAK, S.A.U.-ren %100aren jabea.

1.6.- Sozietateari ez zaio jakinarazi berarengan eragina duen hitzarmen parasozialik eta ez da hitzartutako akziorik ezagutzen bere akziodunen artean.

1.7.- Sozietateak ez du akziorik autozorroan.

1.8.- Estatutuetan ez dago mugarik boto-eskubideak erabiltzeari dagokionez.

1.9.- Estatutu Sozialen 2. artikuluan ondoko murrizketak ezartzen dira kapital sozialaren partaidetzen transmisioari dagokienez:

“Sozietatearen akzioak besterendu gura dituen bazkideak, nahi hori idatziz jakinarazi beharko dio Administrazio Kontseiluari. Administrazio Kontseiluak hilabete bateko epean gainerako akziodunei jakinaraziko die. Akziodunek bi hilabeteko epea izango dute erosteko aukera izan eta erosketa gauzatzeko. Akzioak erosi gura dituztenak bat baino gehiago badira, horien artean banatuko dira, bakoitzaren partaidetzaren prorratan.

Inongo bazkiderik ez baditu gura salgai dauden akzioak, Sozietateak erosi ahalko ditu, hogeita hamar eguneko epean, Legeak ezarritako muga eta ondorioekin.

Behin epea igarota, bazkidea libre izango da bere akzioak eskualdatzeko egokitzat deritzon moduan eta horretarako bi hilabeteko epea izango du.

Aurretik ezarritako lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzeko, salmenta-prezioa, -eskualdatu beharreko akzioen balio errealak izan beharko da gutxienez adostasunik ez badago, perituak finkatukodu. Aldeek elkarrekin ados izendatzen dute peritua edo, ados ez badaude, eskumena duen epaileak.

Baliogabetzat hartuko dira Sozietatetik kanpoko pertsonenganako akzio- eskualdaketak, Estatutuetan ezarritakora doitzen ez direnak.

2. SOZIETATEAREN ADMINISTRAZIOAREN EGITURA

2.1.- Estatutuetan aurreikusitako kontseilari kopurua:

Estatutu Sozialen 8. artikuluan ondokoa ezartzen da: *“Gehienez hamar kidek osatuko dute Administrazio Kontseilua, bazkideen ordezkari izango dira eta Batzar Nagusiak izendatuko ditu, akziodunek hala proposatuta...”*.

Zehaztutako kontseilari kopurua hamarrekoa da (10) 2010eko abenduaren 31n.

2.2.- Administrazio Kontseiluko kideak ondokoak dira 2010eko abenduaren 31n:

Kontseilariaren izena edo izen soziala	Kontseiluan duen kargua	Lehenengo izendapenaren eguna	Azkeneko izendapenaren eguna
Francisco Berjón Ayuso jn.	Presidentea	09.07.24	
Iñaki Hidalgo González jn.	1. presidenteordea	09.11.02.	
J. M. Iturrate Andechaga jn.	2. presidenteordea	10.06.17	
Tomas Orbea Celaya jn.	Kidea	09.07.24	

Kontseilariaren izena edo izen soziala	Kontseiluan duen kargua	Lehenengo izendapenaren eguna	Azkeneko izendapenaren eguna
Xabier Garmendia Martínez jn.	Kidea	09.07.24	
Pedro Gómez Damborenea jn.	Kidea	10.10.07	
Gorka Estébez Mendizabal jn.	Kidea	09.11.02.	
Joán Sallés Alvira jn.	Kidea	10.06.30	
Sorkunde Aiarza Begoña and.	Kidea	09.12.03	
Izaskun Artetxe García and.	Kidea eta idazkaria	07.07.26	09.11.02.

Hautaketa-prozedura kasu guztietan: azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.

2.3.- 2010ean, kontseilari hauek utzi dute Administrazio Kontseiluko kargua:

Izena	Kontseilariaren egoera, kargua utzi duen unean	Bajako data
Pedro Hernández González jn.	Kidea	10.10.07

2.4.- 2010ean, Administrazio Kontseiluko kide hauek izendatu dira:

Izena	Altako data
Pedro Gómez Damborenea jn.	10.10.07

2.5.- Kontseilari berriek ondoko dokumentazioa dute eskura euren prestakuntza eta orientabiderako:

- a.-** Irailaren 24ko 288/1985 Dekretua, Parque Tecnológico-Teknologi Elkartegia, S.A. Sozietatearen funtzionamendu arauari buruzkoa.
- b.-** Parque Tecnológico-Teknologi Elkartegia, S.A.-ren Administrazio Kontseiluaren osaketa.
- c.-** Parque Tecnológico-Teknologi Elkartegia, S.A.-ren Estatutu Sozialak.
- d.-** Kontseiluaren Araudia.
- e.-** Parque Tecnológico-Teknologi Elkartegia, S.A.-ren organigrama.
- f.-** Kudeaketa-plana.
- g.-** Parque Tecnológico-Teknologi Elkartegia, S.A.-ren Administrazio Kontseiluaren aktak, azkeneko hamabi hilabetekoak.

2.6.- Hauek dira kontseilari exekutiboak:

Kontseilariaren izena edo izendapena	Duen kargua
Francisco Berjón Ayuso jn.	Presidentea
José Manuel Iturrate Andechaga jn.	2. presidenteordea
Tomas Orbea Celaya jn.	Kidea
Xabier Garmendia Martínez jn.	Kidea

Kontseilari exekutiboen kopurua guztira	4
Kontseiluaren % guztira	%40,00

2.7.- Hauek dira egungo kanpo-kontseilari dominikalak:

Kontseilariaren izena edo izendapena	Ordezkatzen duen edo izendatzeko proposatu duen akziodun adierazgarriaren izena edo izendapena
Francisco Berjón Ayuso jn.	SPRI, S.A.
J. M. Iturrate Andechaga jn.	SPRI, S.A.
Pedro Gómez Damborenea jn.	SPRI, S.A.
Xabier Garmendia jn.	SPRI, S.A.
Tomas Orbea Celaya jn.	SPRI, S.A.
Iñaki Hidalgo González jn.	BFA/DFB
Izaskun Artetxe and.	BFA/DFB
Gorka Estébez Mendizabal jn.	BFA/DFB
Igotz López Torre jn.	Zamudioko Udala
Juan José Unzilla jn.	UPV/EHU

Kontseilari dominikalen kopurua guztira	10
Kontseiluaren % guztira	%100

Urtean zehar ez da aldaketarik egon kontseilarien tipologiari dagokionez.

2.8.- Kontseilari batzuk kargua utzi dute agintaldia bukatu baino lehen. Kargua uzteko arrazoiak ondokoak izan dira:

Kontseilariaren izena	Kargua uztearen arrazoia
Pedro Hernández González jn.	SPRI, S.A.-k proposatuta

2.9.- Administrazio Kontseiluak ez du kontseilari delegaturik izendatu.

2.10.- Ez da Administrazio Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrik ezarri.

2.11.- Spri taldea osatzen duten bestelako sozietateetan administrari edo zuzendaritzako karguak dituzten kontseilariak:

Kontseilariaren izena edo izen soziala	Spri taldeko erakundearen izen soziala	Kargua
Francisco Berjón Ayuso jn.	Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	Presidentea
	Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A.	Presidentea
	Abanto-Zierbenako Industrialdea, S.A.	Kidea
	Burtzeña Enpresa Parkea, S.A.	Kidea
José Manuel Iturrate Andéchaga jn.	Burtzeña Enpresa Parkea, S.A.	Presidentea
	Zamudioko Enpresen Zentroa, S.A.	Presidentea
	Zuatzu Enpresa Parkea, S.A.	Presidentea
	Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A.	2. presidenteordea
	SPRI, S.A.	Kidea
Iñaki Hidalgo González jn.	SPRI, S.A.	Kidea
Pedro Gómez Damborenea jn.	SPRILUR, S.A.	Kontseilaria
	Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	Kontseilaria
	Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A.	Kontseilaria
Izaskun Artetxe García and.	Abanto Zierbenako Industrialdea, S.A.	Kidea
	Arratiako Industrialdea, S.A.	Presidenteordea
	CEDEMI	Presidentea
	Okamikako Industrialdea, S.A.	Kidea
	Orduñako Industrialdea, S.A.	Kidea
	Burtzeña Enpresa Parkea, S.A.	Kidea
	SPRI, S.A.	Kidea
Urdulizko Industrialdea, S.A.	Kidea	
Tomás Orbea Celaya jn.	SPRILUR, S.A.	Presidenteordea
	Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa:	Presidenteordea
	Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	Kontseilaria
	Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A.	Kontseilaria
Gorka Estebez Mendizabal jn.	Busturialdeko Industrialdea, S.A.	Kontseilaria
	Burtzeña Enpresa Parkea, S.A.	Kontseilaria

Kontseilariaren izena edo izen soziala	Spri taldeko erakundearen izen soziala	Kargua
Xabier Garmendia Martínez jn.	SPRILUR, S.A.	Presidentea
	SPRI, S.A	Kontseilaria
	Teknologi Elkartegia, S.A.	Kontseilaria
	Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	Kontseilaria
	Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A.	Kontseilaria
	Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa:	Presidentea

2.12.- Sozietateak ez du araurik ezarri kontseilariak parte hartu dezaketen kontseilu kopuruari dagokionez.

2.13.- Administrazio Kontseiluak bere gain hartzen dituen erantzukizunak enpresaren dagokionez, ondokoak dira batez ere:

- Inbertsio- eta finantzaketa-politika.
- Administrazio Kontseilua Araudia.
- Urteko Kudeaketa Plana, bai eta bere egikaritzeari buruzko ebaluazio partzialak ere.
- Goi-zuzendaritzako kideentzako pizgarriak eta euren jardueraren ebaluazioa.
- Enpresen onarpena.
- Sozietatearen eta bere talde kontsolidatuaren urteko kontuen formulazioa.
- Eragiketa komertzialak, salmentak batez ere.

2.14.- Sozietateak Kontseiluaren Estatutua du, Administrazio Kontseiluko kide guztiak berretsi eta sinatu dutena. Erlazionaturiko honako gai hauek jasotzen ditu:

- Kontseiluaren osaketa.
- Kontseiluaren egitura.
- Kontseiluaren Batzordeak.
- Kontseiluaren funtzioak.
- Kontseiluaren funtzionamendua.

- Kontseilariak izendatzea eta euren kargua uztea.
- Kontseilariaren betebeharrak (Kode Deontologikoa)/Interes-gatazka.
- Kontseilariaren eskubideak eta ahalmenak.
- Gobernu Korporatiboa.

2.15.- Administrazio Kontseiluak Kontrataziorako Barne Jarraibideak onartu ditu, barne-mailan derrigorrez bete beharrekoak. Horien bidez, kontratazio-prozedurak arautzen dira eta horrela publizitate, konkurrentzia, gardentasun, konfidentziasun, berdintasun eta bereizkeriarik eza printzipioen eraginkortasuna bermatzen da.

2.16.- 2010ean Administrazio Kontseiluko kideei eman zaizkien ordainsari bakarrak presidenteari dagozkie, soldata eta lansari gisa.

2.17.- Goi-zuzendaritzan ez dago aldi berean kontseilari exekutibo ez den kiderik.

2.18.- Ez dago berme- edo blindatze-klausularik Sozietatearen Goi-zuzendaritzako kideen mesede, kontseilari exekutiboak barne.

2.19.- Ekitaldian ez da Kontseiluaren Araudian aldaketarik eman.

2.20.- Batzar Nagusiak adosten du kontseilarien izendapena, berrautaketa eta kargua uztea eta ez dago horretarako aurretiazko prozedura espezifikorik.

2.21.- Kasu hauetan, kontseilariak behartuta daude dimititzera (Kontseiluaren Araudiaren 22. art.):

- *Izendatuak izan ziren epealdia igarotzen denean edo Batzar Nagusiak, legez eta estatutu bidez dituen eskumenak erabiliz, erabakitzen duenean.*
- *Legez aurreikusitako bateraezintasun- edo debeku-kasu bat betetzen denean.*

- *Kontseilari gisa dituzten betebeharrak hausten dituztenean.*
- *Kontseiluan jarraitzeak Sozietatearen interesak arriskuan jar ditzakeenean.*

2.22.- Ahalordeak pertsona bakar batean metatzearen arriskuak mugatzeko, ondoko neurria hartu da: 300.000 eurotik gora, ahalordeak mankomunatuak dira presidentearen, 2. presidenteordearen eta Tomás Orbea Celaya jaunaren eta Xabier Garmendia Martínez jaunaren artean, funtsean, bai ondasun higigarriak bai higiezinak erosi, saldu eta trukatzeko, kontratuak egin, formalizatu, esleitu, luzatu, aldatu, berritu, indargabetu eta deuseztatzeko, mailegu- edo kreditu-eragiketarako izenpetu edo formalizatzeko eta mota guztietako berme, abal, bahi, hipoteka, etab. eskatu, onartu edo ezeztatzeko.

2.23.- Edozein motatako erabakiak hartzeko ez da legeak ezarritakoaz beste gehiengo sendorik eskatzen eta hitzarmenak erdia gehi bat quorumaren arabera hartuko dira.

2.24. Kontseiluaren presidenteari Estatutu Sozialetan eta Kontseiluaren Araudian ezarri zaizkion funtzioak, organo horren funtzionamenduari dagokionez, ondokoak dira:

- a.** Sozietatearen goi-zuzendaritza.
- b.** Kontseiluaren bileretarako deialdia egitea eta horien buru izatea, ebazteko eta eteteko ahalmenarekin. Deliberazioak zuzenduko ditu, hitza nork duen erabakiko du eta mintzaldien iraupena zehaztuko du.
- c.** Kontseiluaren bileren gai-zerrenda finkatzea.
- d.** Kontseiluko kide guztiak bileretara bertara daitezen saiatzea; horretarako, Araudi honetan xedatzen den moduan eta epeetan bidaliko dira deialdiak.
- e.** Kontseilariren bat Kontseilura bertaratzen ez denean horren zioak egiaztatzea, ez bertaratzea errepikatzen denean.
- f.** Kontseiluaren eta Batzordearen hitzarmenak egikaritzea eta betearaztea.
- g.** Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratzea, ebaluaziotik eratortzen diren hobetze-proposamenak martxan jartzea, hala dagokionean, edo hautemandako eraginkortasunik eza zuzentzea.

2.25.- Presidenteak kalitateko botoa du.

2.26.- Kontseiluaren Estatutuek edo Araudiak ez dute kontseilarien adinari buruzko mugarik jartzen.

2.27.- Ez dago prozesu formalik botoak Administrazio Kontseiluari eskuordetzeko, nahiz eta aktak idatziz egindako boto-eskuordetzeak soilik jaso.

2.28.- Administrazio Kontseiluak bost bilera egin ditu 2010ean eta presidentea horietara guztietara bertaratu da.

2.29.- Denera, Administrazio Kontseiluaren bileretara 11 ez-agertze izan dira ekitaldian kontseilarien aldetik, eta kasu guztietan eskuordetu da botoa.

2.30.- Formulatuak izan daitezten Kontseiluari aurkezten zaizkion urteko kontuak aldeztatik egin dira zuzendari nagusi Txaber Ouro Arruza jaunaren gainbegiratzepean.

2.31.- Administrazio Kontseiluak ez du mekanismorik ezarri berak formulatutako urteko kontuak Batzar Nagusian aurkeztea galarazteko, ikuskaritza-txosteneko salbuespenak kontuan izanda.

2.32.- Kontseiluko idazkariak kontseilari izaera du.

2.33.- Kontseiluaren osoko bilkurak onartzen ditu Kontseiluko idazkariaren izendapena eta kargu-uztea.

2.34. Kontseiluko idazkariaren funtzioa da funtzionamendu-arauak egoki aplikatzen eta eta aktak jasotzeko zein sinatzeko prozedurak egoki garatzen direla bermatzea. Akta-liburuak eta akziodunen liburuak zaindu behar ditu eta akordioak tramitatu.

2.35.- Kontu-ikuskariaren independentzia bermatzeko, lehiaketa publikoaren mekanismoa erabiltzen du SPRI, Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A.-k; hartara, publizitatea, objektibotasuna eta konkurrentzia bermatzen baitira.

2.36.- Sozietatearen eta bere inguruan finkatutako enpresa-taldearen urteko kontuak ikuskaritza arduratzen den enpresak, Deloitte S.L.-k, ikuskaritza gain, ez du beste lanik egiten Sozietatearentzat edo/eta bere taldearentzat.

2.37.- 2010eko ekitaldiko urteko kontuen ikuskaritza-txostenean ez da erreserba edosalbuespenik ageri.

2.38.- Egungo ikuskaritza-enpresak aurten lehen aldiz egin du Sozietatearen urteko kontuen ikuskaritza eta hiru urte ditu kontratatuta (2010, 2011 eta 2012). Sozietatea eratu zenetik (duela 25 urte) ikuskatzen dira bere kontuak.

2.39.- Dagozkien funtzioak egiteko laguntza jasotze aldera, kontseilariak legehaholkulariak, kontulariak, finantza-aholkulariak edo bestelako adituak kontrata ditzakete edo bileretara joan daitezten eskadezakete. Halako laguntzaile bat eskatzeko, beharrezkoa da argitu nahi diren arazoak gutxienezko munta eta konplexutasun maila izatea, eta karguaren jardunean agertutakoak izatea.

Kontratatzeko erabakia Kontseiluko presidenteari jakinarazi beharko zaio eta betoa jar dakioko baldin eta ondokoa frogatzen bada:

- a. Ez dela beharrezkoa agindutako funtzioak egoki egiteko.
- b. Kostua ez dela arrazoizkoa arazoaren garrantzia ikusita.
- c. Sozietateko aditu eta teknikariak egoki eman dezaketela eskatutako laguntza teknikoa.

2.40.- Kontseilariak administrazio-organoen bilerak nahikoa denborarekin prestatzeko behar den informazioa izan dezaten, gutxienez hamar egun naturaleko aurrerapenarekin egiten da deialdia –gutun bidez egiten bada–, eta zazpi eguneko aurrerapenarekin –posta elektronikoko bidez egiten bada– kontseilariak kasu bakoitzean adierazitako helbidera. Deialdi horretan, bileraren gai-ordena eta dagokion informazioa ematen dira beti.

2.41.- Administrazio Kontseiluko kideei etengabe informazioa emateko sistema garatu du enpresak. Hala, Administrazio Kontseiluaren bileren gai-ordenaren barruan, enpresaren finantza eta ekonomia-arloari eta jarduerari buruzko informazioa ematen da, eta horrez gain, zuzenean egoeraren berri izateko informazio garrantzitsua ematen da.

2.42.- Administrazio Kontseiluaren Araudian kontseilarientzako Kode Deontologikoagaineratu da, kide guztiek bete beharreko irizpide etikoak eta jokaera-irizpideak jasotzen dituen. Kode horretan, etikoki onargarriak diren erabakiak hartzeko, kontseilarien artean izan daitezkeen interes-gatazketarako, gatazka horiek konpontzeko, etab. irizpideak ezartzen dira, eta ondoko kapituluetan egituratuta dago:

- Jokaera-irizpideak
- Kontseilariaren betebeharrak
- Isilpekotasun-betebeharra
- Gardentasunaren eta informazioaren betebeharra
- Interes-gatazka
- Sozietatearen izena erabiltzea
- Informazio ez-publikoa
- Lotutako pertsona

2.43.- Administrazio Kontseiluko kide batek ere ez dio jakinarazi Sozietateari prozesatu dutenik edo haren aurka ahozko epaiketa irekitzeko autoa eman denik, Kapital Sozietatei buruzko Legearen 213. artikuluan adierazitako delituak direla eta.

2.44.- 2010ekoa Administrazio Kontseiluaren Estatutua ezarri den lehenengo ekitaldia izan denez, 2011n Administrazio Kontseiluaren bilerak ebaluatzea aurreikusi da. Inkesta baten bidez egingo da ebaluazioa eta galderak ondoko arloei buruzkoak izango dira, besteak beste: bileren datak, deialdiak, gai-ordenako gaiak buruzko informazioa, informazio-eskaerei emandako arreta, etab.

3. LOTUTAKO ERAGIKETAK

2010eko eta 2009eko ekitaldietan Sozietatearekin transakzioak egin dituzten lotutako aldeak eta lotura horien izaera ondoren adierazten dira:

	Loturaren izaera
Parque Tecnológico de San Sebastián – Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A.	Taldeko enpresa
Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	Taldeko enpresa
SPRILUR, S.A.	Taldeko enpresa
S.P.R.I., S.A.	Zuzeneko sozietate menderatzailea

3.1.- Lotutako erakundeak

Hauek dira 2010eko eta 2009ko ekitaldien itxieran lotutako erakundeekin izan dituzten saldoak:

2010eko ekitaldia

	Euroak		
	Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak	Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe laburreko zorrak	Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartuak
Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	2.842	-	-
SPRILUR, S.A.	-	-	-
S.P.R.I., S.A.	2.261	400.000	22.470
Guztira	5.103	400.000	22.470

2009ko ekitaldia

	Euroak			
	Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak	Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe laburreko zorrak	Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe luzerako zorrak	Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartuak
Parque Tecnológico de San Sebastián Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A.	5.081	-	-	-
Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	3.841	-	-	-
SPRILUR, S.A.	-	-	-	183
S.P.R.I., S.A.	2.216	400.000	12.300.000	21.205
Guztira	11.138	400.000	12.300.000	21.388

2010eko ekitaldiko ekimen espezifikoetarako Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuetan aurreikusitako baliabideak hornitzeko SPRI, S.A.-k emandako aurrerakinari dagokio "Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe laburreko zorrak" kontuaren saldoa.

2010eko eta 2009ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan ondoko transakzioak egin dira lotutako erakundeekin:

2010eko ekitaldia

	Euroak	
	Jasotako zerbitzuak	Emandako zerbitzuak
Parque Tecnológico de San Sebastián – Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A.	-	15.289
Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	-	25.017
SPRILUR, S.A.	500	-
S.P.R.I., S.A.	96.596	23.843
Guztira	97.096	64.149

2009ko ekitaldia

	Euroak	
	Jasotako zerbitzuak	Emandako zerbitzuak
Parque Tecnológico de San Sebastián – Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A.	-	854
Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	-	854
S.P.R.I., S.A.	30.399	22.954
Guztira	30.399	24.662

Sozietatearen ohiko trafiko-eragiketei dagozkie lotutako aldeekin egindako transakzioak eta lotu gabeko erakundeei aplikatzen zaizkien antzekoak diren merkatu-prezioen arabera egiten dira.

3.2.- Administrariak eta Goi-zuzendaritza

2010eko ekitaldian, Administrazio Kontseiluko kideek ez dute inolako ordainsaririk jaso karguan aritzeagatik. Sozietatearen enplegatu izaki, presidenteari guztira 80.398 euroko ordainsaria eman zaio (15.858 euro 1,4 hilabetez 2009an kargua hartu duen presidentearentzat, 2009ko ekitaldian).

2010eko eta 2009ko abenduaren 31n, Sozietateak ez du obligaziorik Administrazio Kontseiluko edo Goi-zuzendaritzako lehengo edo egungo kideen pentsioei eta bizi-aseguruei dagokienez, ezta horien kontura bereganatutako eskubiderik ere bermegisa.

2010eko eta 2009ko abenduaren 31n, ez zaie aurrerakinik eman Administrazio Kontseiluko edo Goi-zuzendaritzako kideei.

Sozietateen gardentasuna sendotzeko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietatei buruzko Legearen testu bateginaren 229. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Kontseiluko kideek ez dute partaidetzarik izan Sozietate honen xede den jarduera berbera, antzekoa edo osagarria duen ezein sozietatetako kapitalean. Era berean, ez dute gauzatu eta ez dute gauzatzeko Sozietate honen xede den jarduera berbera, antzekoa edo osagarria duen jarduerarik beren edo besteren kontura, ondoren adierazten direnak salbu:

Administraria	Kargua/funtzioa	Sozietatea
Francisco Berjón Ayuso	Presidentea Presidentea Kidea Kidea	Arabako Teknologi Elkartegia, S.A. Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A. Abanto-Zierbenako Industrialdea, S.A. Burtzeña Enpresa Parkea, S.A.
Pedro Gómez Damborenea	Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria	SPRILUR, S.A. Arabako Teknologi Elkartegia, S.A. Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A.
Francisco Javier Garmendia Martínez	Kontseilaria Presidentea Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Presidenteordea Kontseilari-presidentea Presidenteordea Presidenteordea Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Presidentea Kontseilaria Batzordekidea Batzordekidea Batzordekidea Batzordekidea	Luzaro, E.F.C., S.A. SPRILUR, S.A. SPRI, S.A. Teknologi Elkartegia, S.A. Arabako Teknologi Elkartegia, S.A. Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A. Pasaiako Portuko Agintaritza Energiaren Euskal Erakundea Bahía de Bizkaia Electricidad, S.L. Naturgas Energía Zabalgarbi, S.A. Mondragón Desarrollo, SPE, S.A. Mondragón Promoción Empresaria, SPE, s.a. Mondragón Innovación SPE, S.A. Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa EKARPEN SPE, S.A. SUZTAPEN Fondo de Capital Riesgo EZTEN Fondo de Capital Riesgo EKINTZAILE Fondo de Capital Riesgo ELKANO XXI Fondo de Capital Riesgo

Administraria	Kargua/funtzioa	Sozietatea
Iñaki Hidalgo	Presidentea Kidea Kidea Kidea Presidentea Presidentea Presidentea Kidea	Azpiegiturak, S.A.U. BEC, S.A. Bilbao Air, Bilboko Aireportua Sustatzeko Sozietatea Bilbao Ría 2000, S.A. Bizkaiko Bideak, S.A. Bizkailur, S.A. Beaz, S.A. SPRI, S.A.
Gorka Estebez Mendizabal	Kontseilari delegatua Batzar Nagusia Batzar Nagusia Batzar Nagusia Batzar Nagusia Batzar Nagusia Batzar Nagusia Batzar Nagusia Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria	Azpiegiturak, S.A.U. Elorrioko Industrialdea, S.A. Urdulizko Industrialdea, S.A. Okamikako Industrialdea, S.A. Abanto-Zierbenako Industrialdea, S.A. Arratiako Industrialdea, S.A. Orduñako Industrialdea, S.A. Mallabiako Industrialdea, S.A. Lantik, S.A. Zugastel, S.A. Busturialdeko Industrialdea, S.A. Ortulur, S.A. Sestao Bai, S.A. Ibar Zaharra, S.A. Burtzeña Enpresa Parkea, S.A.

3.3.- Ekitaldian, Administrazio Kontseiluko kideak ez dira egon inolako interes-gatazkatan nahastuta, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 227., 228., 229. eta 231. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Gai horri dagokionez, Administrazio Kontseiluaren Araudian, hain zuzen ere, ondokoa ezartzen da:

Kontseilariak interes-gatazka egoerak saihestu behar ditu bere eta berarekin eta Sozietatearekin lotura duten pertsonen artean, eta, egoera horiek saihestezinak izanez gero, Administrazio Kontseiluari jakinarazi behar dio. Bereziki:

- *Kontseilariak ez du parte hartu behar zuzenean edo zeharka eragiten dioten gaietarako buruzko erabakietan.*
- *Kontseilariak ez du egin behar –ez zuzenean ez zeharka– zerbitzu profesionalen edo izaera komertzialeko zerbitzuen transakziorik Sozietatearekin, aurrez interes-gatazkari buruz informatzen duenean eta kontseiluak transakzioa onartzen duenean salbu.*
- *Kontseilariak ezin du aprobetxatu, bere edo harekin lotura duten pertsonen onurarako, Sozietatearen negozio-aukerarik. Halakotzat jotzen da Sozietatean sortutako edo Kontseilariak, bere kargua dela-eta edo Sozietatearen informazio-bideak erabiliz aurkitutako edozein inbertsio edo eragiketa komertzial egiteko aukera.*

Kontseilariak, edozein gehiegikeria edo ez-betetzere berri dutenean –eta, bereziki, informazio garrantzitsu edo pribilegiatuaren erabilerarekin lotua badago– presidenteari jakinarazi behar diote, Sozietatearekiko duten leialtasunagatik.

4. ARRISKUEN KONTROLA

4.1.- Kreditu-arriskua

Sozietateak jasan dezakeen kreditu-arrisku garrantzitsuena bere merkataritza-eragiketekin loturik dago. Hala ere, aipatu arriskua ez dago modu nabarmenean metatuta, hainbat bezeroren artean banatuta baitago.

Sozietateak, aldeztu aurretik, higiezinak esleitzeko eskaerak banaka aztertzen ditu. Bestalde, zatika ordaintzen bada, jabetzaren eskualdaketa formalizatzen den unean higiezinak jabaria erreserbatzeko itunarekin formalizatuta daude, hitzartutako zenbateko guztiak diren bitartean. Hori dela eta, ez da arrazoi hori duen arrisku nabarmenik frogatu.

4.2.- Likidezia- eta interes-arriskua

Sozietateak bere jarduera gauzatzeko behar dituen finantza-baliabideak lortzeko duen gaitasuna EAeko Urteko Aurrekontuetan finkatzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bertako erakunde finantzarioek normalean urtero izenpetzen duten hitzarmenaren bidez arautzen dira finantza-baliabide horiei, aktiboak zein pasiboak, dagozkien baldintzak. Kasuan kasu aplikatu beharreko eta Euriborraren arabera ezarritako interes-tasak, komisioak, etab. finkatzen ditu aipatu hitzarmenak.

4.3.- Merkatu- eta prezio arriskua

Egoera ekonomiko orokorrak baldintzatzen du Sozietatearen jarduera, eragiten duten zikloen mende dago.

Hala ere, arrisku horiek arintzen dira Sozietateak EAEn politika industrialeko tresnak garatzen dituelako eta, beraz, ez ditu bere aktiboak jarduera gauzaten duen sektorearen ohiko denbora-mugan gauzatu behar.

4.4.- Kontseiluan lortutako akordioen balio juridikoa bermatzeko mekanismo gisa, Administrazio Kontseiluko abokatu aholkulari bat izendatu da.

4.5- Administrazio Kontseiluko kide guztientzat erantzukizun zibileko estaldura duen aseguru-poliza kontratatu da, enpresaren kontura, Kontseiluko kideen erantzukizun-erregimenaren aplikazioa dela-eta sor daitezkeen gatazken aurrean lege-estaldura izateko.

5. BATZAR NAGUSIA

5.1.- Batzar Nagusia eratzeko quorumari dagokionez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateei buruzko Legean aurreikusitako gutxieneko erregimenarekin.

5.2.- Hitzarmen sozialei dagokienez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateei buruzko Legean aurreikusitako erregimenarekin.

5.3.- Batzar Nagusiak izaera unibertsalarekin egin ohi dira.

5.4.- Batzar Nagusiko presidentea eta Administrazio Kontseiluko presidentea pertsona bera dira.

5.5.- Sozietateak ez du egin Batzar Nagusiko Araudirik.

5.6.- Hauek dira txosten honi dagokion ekitaldian egindako Batzar Nagusietara bertaratutako datuak:

Batzar Nagusiaren data	Bertaratutako datuak		
	Presentziafisikoaren %	Ordezkaritzaren %	Guztira
2010.06.17	%100	%0	%100
2010.06.30	%100	%0	%100
2010.10.07	%100	%0	%100
2010.12.16	%100	%0	%100

5.7.- Txosten honi dagokion ekitaldian egindako Batzar Nagusietako akordio guztiak aho batez hartu dira. Hain zuzen, ondoko akordioak hartu dira:

2010eko ekainaren 17an egindako Batzar Nagusia

1. Sozietatearen urteko kontuak (balantzea, galdu-irabazien kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera, diru-fluxuen egoera eta memoria), emaitzak aplikatzeko proposamena eta Sozietatearen kudeaketa –hori guztia 2009ko ekitaldiari dagokionez– aztertzea eta onestea, hala badagokio.
2. Administrazio Kontseilurako kide-kopurua zehaztea eta kontseilariak izendatzea.
3. Estatutu sozialen 8. artikulua, Administrazio Kontseiluari buruzkoa, aldatzea.

2010eko ekainaren 30ean egindako Batzar Nagusia

1. Kapital soziala zabaltzea diruzkoa ez den ekarpenaren bidez eta horren ondorioz Estatutuak aldatzea.
2. Administrazio Kontseilurako kide-kopurua zehaztea eta kontseilaria izendatzea.

2010eko urriaren 7an egindako Batzar Nagusia

1. Administrazio kontseiluko kideak kargutik kendu eta beren ordezkariak beste batzuk izendatzea.

2010eko abenduaren 16an egindako Batzar Nagusia

1. Kapital soziala zabaltzea eta horren ondorioz Estatutu Sozialen 2. artikulua aldatzea.
2. Kontu-ikuskariak izendatzea.

5.8.- Estatutuetan ez dago mugarik Batzar Nagusira joateko beharrezkoa den gutxieneakoakzio-kopuruari buruz.

AZKEN OHARRA:

Administrazio Kontseiluaren Estatutuaren edukia ikusteko, webgune honetara jo daiteke zuzenean: www.parque-tecnologico.net